

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

4573

AGINDUA, 2022ko urriaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskaritza zentralen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duena.

Urtarrilaren 13ko 3/2009 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duenak, Hezkuntza Ikuskaritzako Ikuskaritza Zentralaren lanpostua ezarri zuen. Lanpostu horren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 12. artikuluan daude jasota.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 10.6 artikulua xedatzen duenez, ikuskari zentralak ikuskari nagusiaren mende egongo dira zuzenean, eta hezkuntza-arloan eskumena duen saileko titularrak izendatuko ditu, ikuskari nagusiak proposatuta, izendapen askeko prozeduraren bidez.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 47. eta 48. artikuluetan eta Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 21eko Aginduaren laugarren oinarrian agindutakoaren arabera (2022ko irailaren 27ko EHAA), sail honetan lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duena, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Marta Irazoqui Aguirre andrea Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari zentral izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen horrek agindu honen egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua EHAA-n argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua EHAA-n argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 20a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.